

3

Zenbakien hurbilketak egitea

1. Hauek dira euroguneko 8 herrialde populatuena.

Bandera	Herrialdea	Populazioa
	Alemania	83.019.214
	Frantzia	67.028.048
	Italia	60.359.546
	Espainia	46.934.632
	Herbehereak	17.282.163
	Belgika	11.467.923
	Grezia	10.722.287
	Portugal	10.276.617

Kokatu herrialdeak zenbakien lerroan, duten populazioaren arabera.



Zein herrialdek ditu gutxi gorabehera 70 milioi biztanle?

Herrialde horietako zein dago hurbilen 20 milioi biztanle izatetik?

Data:



2. 9 zifrako zenbakiak osatu nahi ditugu txartel hauek berrantolatuz:



- Txartelak txikienetik handienera ordenatzen baditugu, zer zenbaki lortuko dugu?
Zenbaki hori zenbat milioi da, gutxi gorabehera?
- Txartelak handienetik txikienera ordenatzen baditugu, zer zenbaki lortuko dugu?
Zenbaki hori zenbat milioi da, gutxi gorabehera?

3. 5 zifrako zenbakiak osatu nahi ditugu txartel hauek berrantolatuz:



- Txartelak txikienetik handienera ordenatzen baditugu, zer zenbaki lortuko dugu?
Zenbaki hau 000z amaitzen den zein milakotik dago hurbilen?
- Txartelak handienetik txikienera ordenatzen baditugu, zer zenbaki lortuko dugu?
Zenbaki hau 000z amaitzen den zein milakotik dago hurbilen?